

**Hezkuntza publikoan
lan baldintzak hobetu.**
Hemen eta orain erabakita.

Prentsa oharra:
Urtarrilak 23ko greba balorazioa

Gaur ere Hezkuntza publikoko irakasleen grebak oso jarraipen zabala izan du, atzokoaren parekoa.

STEILAS, LAB, ELA eta CCOO sindikatuok deitutako grebak jarraipen zabala izan du bigarren egunez. Bilbo, Donostia eta Gasteizen burutu ditugun manifestazioetan milaka irakaslek kaleak bete ditugu berriro.

Sindikatuok batutako datuen arabera, grebak jarraipen zabala izan du, izan ere, deitutako en %75etik gorak babestu du, atzoko greba egunaren parez pare. Hala ere, beste behin ere, salatzekoa da Eusko Jaurlaritzak ezarritako gehiegizko zerbitzu minimoak direla eta milaka langileri greba eskubidea ukatu zaiela eta ondorioz, greba bera baldintzatua egon dela.

Bi greba egun hauetan irakasleek oso mezu argia helarazi diote Hezkuntza Sailari:

- 15 urte direla hitzarmena eta lan baldintzak eguneratu gabe; eta aski dela.
- Lan zamak arintzea, enplegu publikoa kontsolidatu eta bermatzea, eros ahalmena berreskuratzea, lan osasuna zein euskara eta hezkidetzak bermatzeko neurriak proposatzeko garaia dela.
- Eta, ez badago aldarrikapen hauekiko erantzunik grebetan jarraitzeko indarrekin daudela.


Beraz, hezkuntza sailari edukirik gabeko mahaiak deitzeari uzteko eskatzen diogu, grebak desaktibatzeke gutun eta estrategiak alboratzeko eta eskaera hauei erantzun egiten proposamenak egiteko. Hezkuntza publikoa indartzeko ezinbestekoa da inbertsioa handitu eta lan baldintzak hobetu eta baliabideez hornitzea.

Aipagarriak dira greba babestu duten irakasle kopuru handia dela eta, irakas jarduera ia osotasunean geldirik izan duten ondorengo ikastetxeak:

- **Gipuzkoan:** Martutene HLHH (100%); Lauaizeta BHI (100%); Igeldo Herri Eskola (%93) eta Harri Berri Oleta (100%) Donostian; Koldo Mitxelena HLHH (%80) Oreretan, Goizeko Izarra Ikastola Mutrikun (%85)
- **Bizkaian:** Atxuriko eskola (%100) eta Txurdinaga (%100) Bilbon, Albiz (%70) Sestaon, Itxasoko ama (%97) Santurtzin edo Arziko eskola (%100) Basaurin, edo Minas BHI (%81) Barakaldon
- **Araban:** Salburua HLHH (%90); Lopez de Guereñu (%82); Umandi (%74); Zabalgana BHI (%80) eta Amurrioko Zabaleko (%75)

Greba arrakastatsuak izan dira **"Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!"** lelopean. Gaurko hiru manifestazioetan milaka langile elkartu gara hiriburuetako kaleetan eta jarraipena emango diogu otsaileko greba deialdietan ere.

Aste honetako greba dinamikari jarraipena emanez, hurrengo astean ere greba egunak dituzte Haurreskolak Partzuergoko langile, sukaldari eta garbitzaileen sektoreetan, eta manifestazioak egingo ditugu lan hitzarmenak hemen eta orain erabakita lelopean. Haurreskolak Partzuergoan urtarrilaren 28 eta 29an izango dira grebak; eta Sukalde eta garbiketaren urtarrilaren 30 eta 31an. Manifestazio lekuak jakinaraziko ditugu hurrengo egunetan.



Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.

Decididas aquí y ahora.

Nota de prensa:

Valoración de la huelga del 23 de enero

La huelga del profesorado de la enseñanza pública ha tenido un seguimiento amplio igualando la convocatoria de ayer

La huelga convocada por STEILAS, LAB, ELA y CCOO ha tenido un amplio seguimiento por segundo día consecutivo. En las manifestaciones que hemos llevado a cabo en Bilbao, Donostia y Gasteiz miles de profesores y profesoras hemos llenado las calles.

Según los datos recogidos por los sindicatos, la huelga ha tenido un amplio seguimiento, ya que ha sido apoyada por el 75% de las personas convocadas, aunque, una vez más, hay que denunciar los servicios mínimos abusivos establecidos por el Gobierno Vasco y que se ha negado el derecho de huelga a miles de trabajadores y trabajadoras, por lo que la huelga ha estado condicionada.

En estas dos jornadas de huelga el profesorado ha trasladado un mensaje muy claro al Departamento de Educación:

- Llevamos 15 años sin actualizar el convenio y las condiciones de trabajo; y ya basta.
- Es hora de proponer medidas para aliviar las cargas laborales, consolidar y garantizar el empleo público, recuperar el poder adquisitivo, garantizar la salud laboral, el euskera y la coeducación.
- Si no hay respuesta a estas reivindicaciones el profesorado está con fuerzas para seguir con futuras huelgas

Por tanto, exigimos al Departamento de Educación que deje de convocar mesas vacías de contenido, que deje de lado las cartas y estrategias para desactivar las huelgas, y que haga propuestas que respondan a estas demandas. Para reforzar la educación pública es imprescindible aumentar la inversión y mejorar las condiciones laborales y dotarla de recursos.

Son destacables los siguientes centros escolares que, debido al gran número del profesorado que han apoyado la huelga, han tenido paralizada su actividad docente casi en su totalidad:

- **Gipuzkoa:** Martutene HLHH (100%); Lauizeta BHI (100%); Igeldo Herri Eskola (93%) y Harri Berri Oleta (100%) en Donostia; Koldo Mitxelena HLHH (80%) en Orereta, Goizeko Izarra Ikastola en Mutriku (85%)
- **Bizkaia:** Atxuriko eskola (100%) y Txurdinaga (100%) en Bilbo, Albiz (70%) en Sestao, Itxasoko Ama (97%) en Santurtz o Arziko eskola (100%) en Basauri, Minas BHI (81%) en Barakaldo
- **Araba:** Salburua HLHH (90%); Lopez de Guereñu (82%); Umandi (74%); Zabalgana BHI (80%) en Gasteiz y Zabaleko en Amurrio (75%)

Las huelgas bajo el lema **“¡Mejora las condiciones laborales, decidido aquí y ahora!”** han sido un éxito. En las tres manifestaciones de hoy hemos reunido miles de trabajadores y trabajadoras en las calles de las capitales y estamos dispuestas a seguir con esta dinámica movilizadora.

Dando continuidad a la dinámica de huelga de esta semana, la semana siguiente también tienen jornadas de huelga en los sectores de trabajadores, cocina y limpieza, y del Consorcio Haurreskolak, y nos manifestaremos bajo el lema **“lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!”**. En el Consorcio Haurreskolak las huelgas serán los días 28 y 29 de enero; y en Cocina y limpieza los días 30 y 31 de enero. Comunicaremos los lugares de manifestación en los próximos días.

LAB

steilas

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

CCOO
irakaskuntza